

BANAKETA ETA KOMUNIKAZIO KANALAK

Gure produktua bezeroengana modu eraginkor eta ulergarrian iristeko estrategia oso bat garatuko dugu. Banaketa eta komunikazio kanal egokiak erabilita, gailua ezagutzera ematea eta erabiltzaileen eskuragarritasuna erraztea bermatuko dugu. Honakoak dira hartuko ditugun urrats nagusiak:

1. Komunikazio Kanalen Garapena

Bezero potentzialek gure produktua ezagutu eta ulertu ahal izateko, komunikazio kanal anitz eta eraginkorrak erabiliko ditugu:

a) Iragarkiak eta Eduki Promozionalak

- Sare sozialak: Irudi erakargarriak eta bideo informatiboak argitaratuko ditugu Instagram, Facebook, eta YouTube-n. Eduki hauek:
 - Produktuaren funtzioak eta osasun-abantailak azalduko dituzte.
 - Mediku edo erabiltzaileen testigantzak erakutsiko dituzte.
- Telebistako iragarkiak: Gailua merkatu zabalago bati aurkezteko, ikus-entzunezko formatu ulerterraza erabiliko dugu.
- Kaleetako kartelak: Erabiltzaile potentzial gehien dauden tokietan (ospitale inguruak, farmazia ondoan, kiroldegia) kokatuko ditugu.
- Osasun-aldizkariak eta webguneak: Artikulu informatiboak argitaratuko ditugu, gure produktua osasunaren hobekuntzan lagungarri dela azpimarratzeko.

ADIBIDEAK DOKUMENTUAREN AMAIERAN

b) Zuzeneko Ekintzak eta Aurkezpenak

- Osasunari lotutako ekitaldiak: Osasun feriak, biltzarrak eta hitzaldiak aprobetxatuko ditugu produktua zuzenean aurkezteko.
- Eskolak eta zaharren egoitzak: Gailuaren erabilera eta onurak azalduko ditugu bertako komunitateei, horrela, gailua behar duten pertsonen zuzenean iristeko.
- Demostrazio guneak: Denda fisikoetan edo farmazietan gailuaren erabilera erakusteko demostrazioak egingo ditugu.

2. Banaketa Kanalen Estrategia

Bezeroek produktua erraz eta modu seguruan eskuratzeko aukera izan behar dute. Horretarako, banaketa kanal zabal eta irisgarriak eskainiko ditugu:

a) Online Salmenta

- Webgune ofiziala: Produktua zuzenean gure webgunetik erosteko aukera emango dugu, esperientzia erraz eta intuitiboa eskainiz. Ordainketa-metodo seguruak eta entrega bermeak eskainiko ditugu.
- Farmazia online-ak: Banaketa aliantzak sortuko ditugu osasun-produktuen online saltokiekin.

b) Denda Fisikoak

- Farmazia eta osasun-dendak: Produktua bertan ikusgai eta salgai egongo da. Era berean, dendako langileak trebatu egingo dira produktua sustatu eta erabiltzaileei aholkuak emateko.
- Osasun-erakundeak: Gure produktuak ospitale, klinika eta osasun-zentroen bidez zuzenean eskaintzea ere aztertuko dugu, erakunde horien banaketa gaitasunak aprobetxatuz.

c) Banaketa Logistika

- Entrega azkarra eta seguruak: Online erosketen kasuan, produktua eroslearen etxera bidaliko dugu:
 - Entrega estandarra: 2-3 eguneko epea.
 - Entrega express-a: 24 ordutan jasotzeko aukera gehigarria.
- Denda fisikoetan jasotzea: Online erosketak egindakoan, erabiltzaileak aukera izango du gailua denda fisiko batean jasotzeko.

3. Bezeroarentzako Laguntza eta Arreta

Gure bezeroei laguntza guztia emango diegu gailua erraz eta ongi erabiltzeko.

a) Laguntza eta Informazioa

- Telefono bidezko laguntza: Bezeroek dei bat egin dezakete edozein arazo konpontzeko edo galderak egiteko.
- Online laguntza: Gure webgunean gida sinpleak eta ohiko galderen erantzunak jarriko ditugu.
- Bideo tutorialak: Gailua nola erabili azaltzen duten bideo laburrak prestatu eta sarean jarriko ditugu.

b) Mantentze-lanak eta Hobekuntzak

- Mantentze-laguntza: Gailuak matxuraren bat badu, azkar konponduko dugu.

- Hobekuntzak: Erabiltzaileen beharretara egokitzeko aholkuak eta eguneratzeak eskainiko ditugu. Adibidez, gailuak jasotzen dituen datuak aztertuta, erabilera hobetzeko gomendioak emango ditugu.

4. Produktua Atzerrira Zabaltzea

Gure produktua arrakasta izan ondoren, beste herrialde batzuetara eramatea izango da hurrengo helburua:



- Merkatua aztertzea: Beste herrialdeetan produktua behar duten ikusi eta arau egokiak ikasiko ditugu.
- Banaketa-akordioak: Tokiko farmaziekin eta osasun-zentroekin elkarlanak egingo ditugu produktua herrialde horietan saltzeko.

Ondorioz, komunikazio kanal eraginkorrak eta banaketa estrategia ongi egituratuak ezarrita, gure produktua merkatura arrakastaz iristeko aukera areagotuko dugu. Bezeroek gure gailua erraz eskuratzeko eta erabiltzeko moduak eskaintzea lehentasun nagusietako bat izango da.

IRAGARKIAK ETA EDUKI PROMOZIONALAK

INSTAGRAM: @finishinnova

FACEBOOK: @finishinnova



KALEAN JARRIKO DUGUN KARTELAK:

FINISH-INNOVA



.....

BIOPULSE

ZER DA?

Eskumuturrean jartzen den gailu berritzailea da, odolaren osagaiak analizatzeko odola ateratzeko beharrik gabe. Teknologia aurreratua erabiltzen du (presio-sentsoreak), odolaren egoera azkar eta eroso aztertzeko.



**AURKITU GAITZAZU
SARE-SOZIALETAN**

 @finishinnova
 @finishinnova

.....

WEBGUNEAK:

 **WEBGUNEAK**.webm